



EBAZPENA, 2019ko apirilaren 11koa, Hezkuntzako sailburuordearena, zeinaren bidez musika-irakaskuntzak ematen dituzten ikastegi pribatuei 2018ko dirulaguntzak ematen baitzaizkie, musika-irakaskuntzak ematen dituzten ikastegi pribatuetarako diru-laguntzen deialdia egiten duen Hezkuntzako sailburuaren 2018ko azaroaren 27ko Aginduari jarraituz.

2018ko abenduaren 14an, argitara eman zen Hezkuntzako sailburuaren 2018ko azaroaren 27ko Agindua, musika-irakaskuntzak ematen dituzten ikastegi pribatuetarako diru-laguntzen deialdia egiten duena 2018ko ekitaldirako, hain zuzen ere 2017-2018 ikasturtean izandako kostuak partez finantzatzen laguntzeko.

Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzak ebaluatu ditu aurkeztutako eskaerak, aginduaren 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik eta, betiere, jarduketa guztietan errespetatuz oinarri arautzaileetan eta indarreko araudian dirulaguntzak emateko eta kudeatzeko ezarritako prozedura. Ebaluazio horren emaitza ikusita, Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariak –horretarako izendatu baitzen aipatutako artikuluekin bat etorritik– ebazpen-proposamena egin eta helarazi zion Hezkuntzako sailburuordeari, hautaketa-prozesuan onartutako eskaerei dirulaguntzak eman eta ukatzeko.

Hezkuntzako sailburuordeak proposamena jaso ondoren, eta aginduaren 14. artikuluan xedatutakoari jarraituz, sailburuordeak berak ebatziko ditu eskaerak eta erakunde interesdunei jakinaraziko dizkie. Horretarako, lau hilabeteko epea izango du gehienez, deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Adierazitako horregatik guztiagatik, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

1. artikulua.- I. eranskinean zerrendatzen diren erakunde onuradunei ematea musika-irakaskuntzak ematen dituzten ikastegi pribatuei zuzendutako dirulaguntzak, eranskinean bertan zehazten diren zenbatekoen arabera, 2017-2018 ikasturteko kostuak partez finantzatzeko, betiere Hezkuntzako sailburuaren 2018ko azaroaren 27ko Aginduaren 10. artikuluekin bat etorritik, eta Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariaren proposamenez.

2. artikulua.- II. eranskinean ageri den erakunde eskatzaileari ukatzea dirulaguntza, 2018ko abenduaren 27ko Aginduaren 3 a) eta 4 d) artikuluetan ezarritako parte-hartze betekizunekin bat etorritik, eta Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzaren proposamenez.

3. artikulua.- Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin agintzea, herritar oro jakitun egon dadin.

#### AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Gainerako betekizunei dagokienez, kontuan hartuko da Hezkuntzako sailburuaren 2018ko abenduaren 27ko Aginduan xedatutakoa.

#### AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honen kontra, gora jotzeko errekurtsioa ezar dakioke Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena ikastetxeei jakinarazten zaien egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko apirilaren 11

Hezkuntzako sailburuordea,  
MIREN MAITE ALONSO ARANA




**I. ERANSKINA, 2019ko apirilaren 11ko Ebazpenarena - EMANDAKO DIRULAGUNTZEN ZERRENDA**

% 25eko edo hortik gorako udal-finantzazioa duten ikastegiak

ZK.	Zentroaren izena	Titularra	Finantzatu daitezkeen orduak	Dirulaguntza
1	EMPR "ARRASATE MUSIKAL" MEPR	Arrasate Musikal	800,54	171.045
2	EMPR "BERGARA" MEPR	Bergara Musika Eskola	582,3	124.414
3	EMPR "SECUNDINO ESNAOLA" MEPR	Inst. Musika Ikast. Secundino Esnaola	534,76	114.258
4	EMPR "ONYARBI"	Hondarribiko Musika Eskola	501,88	107.233
5	EMPR "DOINUA" MEPR	Musika Eskola de Legazpi	493,54	105.450
6	EMPR "ORDIZIA" MEPR	Ordiziako Musika Eskola S.L.	458,35	97.931
7	EMPR "JOSE DE AZPIAZU" MEPR	Oñatiko Musika Eskola	447,88	95.695
8	EMPR "JUAN DE ANTXIETA" MEPR	Musika Eskola Juan de Antxieta	411,22	87.863
9	EMPR "LAZKAO TXIKI" MEPR	Lazkao Txiki Musika Eskola	400,75	85.625
10	EMPR "TXORI TXIKI" MEPR	Txori-Txiki Musika Eskola Elkarte	387,74	82.846
11	EMPR "BIZKARGI" MEPR	Asoc. Bizkargi	337,62	72.137
12	EMPR "NORBERTO ALMANDOZ" MEPR	Asoc. Norberto Almandoz Musika Eskola	334,37	71.442
13	EMPR "LEIZARRA" MEPR	Leizarra Musika Eskola	288,7	61.684
14	EMPR "GARAMENDI'TAR AGUSTIN" MEPR	Musika Eskola de Elorrio	257,23	54.959
15	EMPR "ALBOKA" MEPR	Asoc. Kaltxango Musikal de Ermua	254,21	54.315
16	EMPR "ABANTO" MEPR	Abantoko Soinulari Elkarte	215,96	46.141
17	EMPR "TOBERA" MEPR	Zegamako Musika Eskola	205,06	43.814



18	EMPR "ESKORIATZA" MEPR	Eskoriatza Musika Eskola	205,03	43.807
19	EMPR "ZUMARTE" MEPR	Zumarte Usurbilgo Musika Eskola	200,19	42.773
20	EMPR "IBARGAIN" MEPR	Escuela de Música Ibargain	182,24	38.936
21	EMPR "HALA DZIPO" MEPR	A. Cult. Hala Dzipo Barakaldo	169,49	36.213
22	EMPR "AMEIKUTZ" MEPR	Ameikutz Musika Eskola	127,3	27.200
23	EMPR "ERTXIÑA" MEPR	Zestoako Musika Eskola	126,1	26.943
24	EMPR "SORALUZE" MEPR	Soraluzeko Musika Eskola	122,07	26.082
25	EMPR "TXINDATA" MEPR	Asoc. Txindata Musika Eskola	74,84	15.990
26	EMPR "MARRATE" MEPR	Asoc. Cultural Musical Marrate	50,3	10.748
<b>GUZTIRA</b>			<b>1.745.544</b>	

### I. ERANSKINA, 2019ko apirilaren 11ko Ebazpenarena - EMANDAKO DIRULAGUNTZEN ZERRENDA

Udal-finantzaziorik gabeko ikastegiak.

ZK.	Zentroaren izena	Titularra	Finantzatu daitezkeen orduak	Dirulaguntza
1	CAPM "SOCIEDAD CORAL DE BILBAO" MIBP	Sociedad Coral de Bilbao	489,59	41.300
2	CAPM "MUSIKASI" MIBP	Musikasi S. Coop.	374,16	31.563
3	EMPR "ARTEBI" MEPR	Pedagogía del Arte S.L.	320,06	26.999
4	CAPM "BEDMAR" MIBP	Bedmar Música S.L	303,25	25.581
5	CAPM "JULIA FORURIA" MIBP	Ana María Foruria Lauzirica	271,52	22.904
6	EMPR "EASO" MEPR	Coro Easo Asociación	215,7	18.196
7	EMPR "JAKINTZA KULTUR ELKARTEA" MEPR	Jakintza Kultur Elkarte	178,64	15.069
8	EMPR "ZURRIOLA" MEPR	Zurriola Musika Eskola	152	12.822



9	EMPR "UDABERRIA" MEPR	Udaberria Elkarte	129,44	10.919
10	EMPR "SAN PATRICIO" MEPR	Aiete Musika Eskola	128,58	10.847
11	EMPR "MUSIKABI SAN IGNACIO" MEPR	Musikabi S.L.	122,33	10.319
12	EMPR "AXULAR" MEPR	Axular Musika Eskola	90,27	7.615
13	EMPR "ADAGIO ESKOLA" MEPR	A. Musical Cult Adagio Eskola	89,5	7.550
14	CAEM "ARIZGOITI" OMIB	Escuela de Mús. Arizgoiti Musikalategia	65	5.483
15	EMPR "THE ENGLISH SCHOOL" MEPR	Colegio Inglés S. Coop	62,31	5.256
16	EMPR "ACADEMIA ARBOS" MEPR	CEM Academia Arbos	61,44	5.183
17	EMPR "VEDRUNA" MEPR	HH Carmelitas de la Caridad	58,72	4.953
18	CAEM "LANDALUZE" OMIB	Estíbaliz Villanueva Campo	34,67	2.924
19	CAEM "LICEO MUSICAL VIZCAINO" OMIB	Liceo Musical Vizcaino S.L.	25,57	2.157
20	CAEM "LARRABETZU" OMIB	Larrabetzu Musika Eskola	22,1	1.864
21	CAEM "LOROÑO" OMIB	Loroño Musikalategia	15,83	1.336
22	CAEM "SOINU" OMIB	M <sup>a</sup> Rosario Ruiz Camiruaga y otros	8,85	747
<b>GUZTIRA</b>			<b>271.587</b>	

## II. ERANSKINA, 2019ko apirilaren 11ko ebazpena - UKATUTAKO DIRULAGUNTZEN ZERRENDA

ZK.	Zentroaren izena	Titularra	Ukatzeko arrazoiak
1	EMPR "VIENA" MEPR	Encarnación Díaz	Ez ditu betetzen deialdi honetan parte hartzeko betekizunak, 3 a) eta 4 d) artikuluen arabera.